

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Kirolari federatu ez profesionalak egindako kirol jardueretarako dirulaguntzen deialdiaren laburpena

BDNS (identifikatzailea): 496141

Alkatearen ebazpena, 2020ko otsailaren 13koa, zeinaren bidez deialdia egiten baita lehiaketa prozedura bidezko 2019-2020ko dirulaguntzetarako, kirolari federatu ez profesionalak egindako kirol jardueretarako.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai (www.infosubvenciones.es).

Lehenengoa. Onuradunak

Onuradun izan daitezke banako kirolari federatu ez profesionalak, probintziako, erkidegoko, estatuko edo nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzen dutenak.

Bigarrena. Xedea

Deialdiaren helburua da arautzea udalerrian erroldatuta dauden eta kirol federatu ez profesionala egiten duten banakoei diru-laguntzak ematea, probintziako, autonomia erkidegoko, estatuko edo nazioarteko lehiaketa ez ofizialetan parte hartu dezaten.

Dirulaguntza eman ahal izango da lehiaketetan parte hartzeko eta kirol materiala erosteko, legez onartuta dauden kirol guztietan.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2019ko martxoaren 25eko bilkuran onetsi ziren eta maiatzaren 22ko 59/2019 ALHAOn argitaratu ziren.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Kirol materialerako: gastuaren ehuneko 50; 100 euro, gehienez.

Lehiaketak egiteko:

Probintziako lehiaketak: 50 euro.

Probintziako lehiaketak eta Euskadiko lehiaketak: 120 euro.

Probintziako lehiaketak, Euskadiko lehiaketak eta estatuko lehiaketak: 200 euro.

Estatuko eta nazioarteko lehiaketak: 230 euro.

Kirol materialerako gehieneko 100 euro horien muga ez da aplikatuko baldin eta egin beharreko adjudikazioak egin ondoren ez bada agortzen aurrekontu partida. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalean banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, eta ez da gaitutako egindako gastuaren ehuneko 100.

Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztu diren eskaera guztiei erantzuteko, kirol materialerako dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan murriztuko da eskaera guztiei erantzun ahal izateko.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak egingo dira oinarrien eranskin ageri den ereduan, oinarrietan jasoriko dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epemuga 2020ko urriaren 1a izango da.

Seigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak

Federazio lizentzia.

Dirulaguntza zein kirol materialen gastutarako eskatzen den, hari dagokion jatorrizko faktura eta ordaindu izanaren egiaztagiria. Eskudirutan ordaindu bada, igorleak zigilua jarri beharko du fakturan eta eskudirutan ordaindu dela adierazi.

Urtean zehar parte hartutako proben egutegia, egiaztagiria eta zerrenda xehatu eta izenpetua; probintziakoak, Euskadikoak, estatukoak edo nazioartekoak izan diren ere adierazi behar da.

Diru sarrera egin nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, adieraziz zein den titularra baldin eta ez bada dirulaguntzaren onuraduna.

Dura, 2020ko otsailaren 13a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE